



## I. ATALA

### BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

#### Bizkaiko Foru Aldundia

#### Ekonomia Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 8/2023, FORU DEKRETUA, urtarrilaren 17koa. Honen bidez, talentua erakartzeko dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.**

I

Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Horri begira, estrategia integral bat abiarazi da, konpromiso hori betetzeko. Estrategia bost jarduketa ardatzetan oinarritzen da: ekintzaitza eta azelerazioa, berrikuntza eta lehiakortasuna, erakarpene eta interkonexioa, lurralde oreka eta talentua eta ezagutza, hori guztia balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onetsi nahi den foru dekretuaren xedea da Talentua Ekaritzeko 2023ko dirulaguntzen programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea, prestakuntza eta esperientzia profesional handiko profesionalak Bizkaira erakartzea, herriratzea, lotzea eta talentua atxikitzea errazteko eta laguntzeko, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo bizi eta lan egin badute, ondoren Bizkaian beren karrera profesionala lehiakortasunaren merkatuan jarrai dezaten, Bizkaiko enpresa-merkatuaren eremuko lehiakortasuna hobetzeko, hain zuzen ere.

Bizkaiak Europako berrikuntza-guneetako bat izan nahi du, eta, horretarako, kualifikazio handiko oinarria izan behar du eta langile horientzako ingurune erakargarri bihurtu behar du. Helburu horrek langile horiek gizarte osoarentzat aktibo gisa balioetsiko dituen gizarte bat izatea eskatzen du. Bizkaiak norabide horretan aurrera egiten duen heinean, kualifikazio handiko pertsonak Bizkaia beren karrera profesionalerako helmuga posible gisa kontuan hartuko dute.

Ekonomia Sustatzeko Sailak, bere jarduera-lerroen bidez, giza baliabideak merkatuaren eskakizun berrien arabera egokitzeko aukera eman nahi du, eta, horretarako, kalitatezko enplegua sortu eta finkatzeko aukera ematen du, hori baita sail horren jarduketaren funtsezko ardatzetako bat.

Bizkaiko Foru Aldundiak hasieratik bultzatu du, lurraldeko giza kapitala sustatzeko eta bultzatzeko helburuarekin, gaitasun handiko langileak etorkizuneko erronkei aurre egiteko talentu hori behar duten enpresekin konektatzeko estrategia. Talentua erakartzeko programa honen helburua da hainbat ekonomia- eta enpresa-erlotan lanbide-kualifikazio eta -esperientzia handia duten pertsonak erakartzea, sorterriratzea eta lurraldean atxikitzea, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna handitzea lortzeko.

Proiektu honen bidez, Bizkaian giza kapitala sustatu eta bultzatzen da, baita lurraldeko ekonomia-sarearekin duen lotura ere. Horrela, bi helburu betetzen dira: gure lurraldeko enpresek etorkizuneko erronkei aurre egiteko behar duten talentua identifikatzea, eta, aldi berean, orain arte ibilbide profesionala atzerrian egin duten profesionalentzako aukerak sortzea. Horrek guztiak lehiarako gaitasun handiagoa eta balio erantsiaren zikloan ekarpen handiagoa ekarriko du Bizkaiko Lurralde Historikoaren egitura ekonomiko eta sozialean.

Elkartearen helburuak lortzeko, hau da, berrikuntza- eta ezagutza-prozesuan kualifikazio handia duten pertsonak erakarri, sorterriratu eta lotzeko baldintzak Bizkaian ezar daitezkeen bultzatzeko eta errazteko, eta, horrela, Bizkaia azpiegitura materialez eta giza azpiegituraz hornitzeko, erakundearen laguntza behar da.



Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak Bizkaiko enpresei talentua erakartzea sustatzeko dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du, enpresa-sektoreak indartzeko eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorretan behar diren kredituak esleitu dira horiek gauzatzeko. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea.

## II

Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio xedapen honen xede den gaiaren gaineko eskumena, hala ondorioztatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautaketa, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikulua modu koordinatuan irakurrita. Lege horretan ezartzen denez, foru-aldundien berezko eskumena da garapen ekonomiko eta soziala sustatzeko lankidetzaren ematea, arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumekin bat etorritik.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio talentua eta ezagutza erakartzearen eta sustatzearen arloko jarduna.

## III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da; manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei buruzkoa.
5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
6. Legezketasunari buruzko txostena.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20. artikuluan aurreikusitako lehia askeko prozeduraren bidez emango dira foru dekretu honen bidez araututako laguntzak. Prozedura horri esker, laguntzak modu eraginkorrean esleitu ahal izango dira, eskabideak jaso ahala, laguntza-eskaera guztiei azkar lagundu ahal izateko, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, deialdiaren indarraldia amaitzen den egunera arte edo deialdia aldeztu aurretik itxi arte.

Bizkaiko enpresek kontratatzeko kualifikazio handiko profesional bat atzematen dutenean sortzen da laguntzaren beharra, hura garatzeko eta lehiakortasunerako beharrezkoa den lanbide-profila duelako.

Era horretako hartzeak eta kontratazioak ez dira aldi berean gertatzen, eta, beraz, ezinezkoa da eskabideak alderatzea eta, ondorioz, lehia egotea.

Lehia askeko prozeduraren bidez, laguntzak modu eraginkorrean esleitzeko aukera ematen da, enpresak berehala gauzatu ahal izan dezan erronka estrategikoak lortzeko eta enpresen lehiakortasuna hobetzeko behar duten lan-kontratazioa.

Dirulaguntzen programa honetan lagundutako proiektuen izaerak epe luzea eskatzen du eskabideak aurkezteko eta azkar esleitu behar dira, diruz lagunduko diren lan-kontratazioak berehala gauzatu ahal izateko.



Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberrako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira).

#### IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, dela bide 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Erregelamendua, Batzordearena, zeinak zehazten baitu de minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baitira 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez, eta 651/2014 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari eta bidezko doikuntzei dagokienez.

#### V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko urtarrilaren 17ko bileran aztertu ondoren, honako hau.

#### XEDATZEN DUT:

##### **Artikulu Bakarra.— Oinarri arautzaileak eta deialdia onestea**

2023 urterako talentua erakartzeko dirulaguntza-programako oinarri arautzaileak eta lehenengo deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

#### XEDAPENA GEHIGARRIA

##### **Xedapen Gehigarri Bakarra.— Izaera pertsonaleko datuen babesa**

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratorritzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeri dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/ EE Zuzentaraua (datuen



babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko («ahaztua izateko eskubidea»), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

#### XEDAPENA IRAGANKORRA

##### **Xedapen iragankor bakarra. – 2022ko Talentua Ekartzeko Programaren aplikazioa**

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren 3/2022, urtarrilaren 18ko Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako dirulaguntza-eskabideak foru-dekretu horretan ezarritakoarekin bat ebatziko dira (Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 22ko 11/2022 Foru Dekretuaren bidez aldatu zen dekretu hori).

2. Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekursoak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak foru-dekretu horretan ezarritakoaren arabera ebatziko dira.

#### XEDAPENA INDARGABETZAILEA

##### **Xedapen Indargabetzaile Bakarra. – Talentua Eraberritzeko 2022ko dirulaguntzen programa indargabetzea**

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da 3/2022, urtarrilaren 18ko foru-dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiaren otsailaren 22ko 11/2022 Foru Dekretuak aldatua. hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

#### AZKENA XEDAPENETAKOA

##### **Azken Xedapenetako Lehena. – Ahalmenak eskuordetzea**

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4 artikuluan jasotako kasua gertatzen bada foru-agindu bidez eskabideak aurkezteko epea luzatu edo itzeko.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.



**Azken Xedapenetako Bigarrena. — Indarrean jartzea**

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2023ko urtarrilaren 17an.

Ahaldun Nagusia,  
UNAI REMENTERIA MAIZ

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua,  
AINARA BASURKO URKIRI



## TALENTUA ERAKARTZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ETA DEIALDIA

### AURKIBIDEA

#### I. titulua. — *Xedapen orokorrak.*

1. oinarria. — *Dirulaguntzaren xedea.*
2. oinarria. — *Definizioak.*
3. oinarria. — *Dirulaguntzaren onuradunak.*
4. oinarria. — *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*
5. oinarria. — *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*
6. oinarria. — *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*
7. oinarria. — *Aurrekontuko zuzkidura.*

#### II. titulua. — *Araubide juridikoa.*

8. oinarria. — *Araubide juridikoa.*
9. oinarria. — *Organo eskudunak.*
10. oinarria. — *Arau-haustea eta zehapenak.*
11. oinarria. — *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*
12. oinarria. — *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

#### III. titulua. — *Dirulaguntzak emateko prozedura.*

13. oinarria. — *Dirulaguntza eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea, eta ondorengo izapideak.*
14. oinarria. — *Eskabidea egiteko behar den dokumentazioa.*
15. oinarria. — *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*
16. oinarria. — *Dirulaguntza emateko prozedura.*
17. oinarria. — *Diruz lagun daitekeen egitatea ebaluatzeko irizpideak.*
18. oinarria. — *Ebazpena.*
19. oinarria. — *Errekurtsoak.*
20. oinarria. — *Dirulaguntzari uko egitea.*
21. oinarria. — *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*
22. oinarria. — *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*
23. oinarria. — *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*
24. oinarria. — *Jakinazpen elektronikoa.*

#### IV. titulua. — *Gauzatzea, justifikatzea eta kontrola.*

25. oinarria. — *Gauzatzeko epea.*
26. oinarria. — *Justifikazio-epea.*
27. oinarria. — *Dirulaguntzak justifikatzea.*
28. oinarria. — *Dirulaguntza ordaintzea.*
29. oinarria. — *Laguntzak metatzea.*
30. oinarria. — *Laguntzen bateragarritasuna.*
31. oinarria. — *Pertsona onuradunen beste betebeharrak.*

#### Eranskina. — *Ekonomia jarduera zerrenda.*

**I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. oinarria. – Dirulaguntzaren helburua**

Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegotik (aurrerantzean, EAE) kanpo bizi eta lan egiten ari ziren kualifikazio eta esperientzia profesional handiko talentudun profesionalak Bizkaira erakarri, sorterriratu, lotu eta atxikitzeko laguntza ematea, beren karrera profesionala Bizkaian jarrai dezaten.
- b) Kualifikazio eta esperientzia handiko profesionalen kontratazioa sustatzea eta laguntzea, beren talentuaren garapena sustatuz, Bizkaiko enpresekin lankidetzan, merkatuan duten lehiakortasuna hobetzeko.

**2. oinarria. – Definizioak**

Oinarri eta deialdi hauen ondorioetarako, honela ulertu behar da:

- a) Kalifikazio eta esperientzia handiko profesionala: kontratazioaren xede den jardueraren eremuan gutxienez 5 urteko esperientzia duen pertsona, bere jarduera profesionala EAEtik kanpo 36 hilabetez egin duena kontratazioaren aurreko azken 48 hilabeteetan.
- b) Deslokalizazioa: Enpresak deslokalizatzen direnean Foru Sektore Publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauaren 2. artikulua arabera, enpresa bat deslokalizatu egin dela ulertuko da bi inguruabar hauek:

Enpresak Bizkaiko Lurralde Historikoan duen jarduera bertan behera uztea edo nabarmen murriztea.

Aurreko egoeretako bat, edozein, gertatzen den unearen aurreko edo ondorengo hiru urteetako epean edo aldi berean, enpresak Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen zuen jarduera lurralde historiko horretatik kanpo garatzea, jarduera utzi duen erakunde berak edo harekin Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aipatutako harremanetakoren bat duen edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko ekainaren 26ko 3/1996 Foru Arauaren 16. artikuluan zehaztutako baldintzetan harekiko lotura duen beste erakunde batek.

**3. oinarria. – Dirulaguntzaren onuradunak**

1. Honako enpresak izan daitezke diru-laguntzen onuradunak, honako baldintza hauek betetzen badituzte eskaera aurkezterakoan:

- a) Batez beste 5 langile izatea, lanaldi osoko urteko baliokideetan.

Langiletzat joko dira lan-kontratu baten bidez enpresari lotuta dauden pertsonak, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean sartuta badaude.

Halaber, langiletzat joko dira lan elkartuko kooperatibetako bazkide langileak, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartuta ez badaude ere, eta enpresan lan- edo lanbide-jarduera garatzen duten pertsonak, baldin eta, beren izaeragatik, ezin badira Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon, Segurtasunaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 305.2 artikulua b eta e letretan jasotakoaren arabera.

Ez dira plantillakotzat joko atzerriko instalazioetan lan egiteko kontratatatu diren langileak.

Seme-alabak edo mendetasuna duten pertsonak zaintzeagatik lansaioaren murrizketen kasuan, erakunde eskatzailearen beraren eskariz, murrizketa kontuan hartu gabe konputatu ahal izango dira lansaio horiek.



- b) Hauetariko jarduera izatea: industria, eraikuntza, garraioa, industria, turismo eta handizkako merkataritzarekin lotutako zerbitzuetan garatzea, industriari eranski-nean ageri dira 2009ko Ekonomi Jardueren Sailkapen Nazionaleko (EJSN) epi-grafeetatik dirulaguntza jaso dezaketenak).
- 2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:
  - a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaiko Lurralde Historikoan horretan izatea.
  - b) Ekoizpen zentro bat, edo balio handikoa, gutxienez, Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea.
  - c) Berezko nortasun juridikoa izatea.
  - d) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.
  - e) Ez egotea Dirulaguntzei buruzko Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra maiatzaren 31 5/2005ko Foru Arauaren(aurrerrantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan azaltzen diren inguruabarretako batean ere. Betekizunak eskabidea aurkezten den unean egiaztatu beharko dira, eta ebazpena eman eta ordainketa egin arte mantendu beharko dira.
- 3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:
  - a) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan (aurrerantzean 4/2005 Legea) adierazitako egoeretakoa batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.
  - b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluaren aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.
  - c) Eusko Jaurlaritzaren menpeko udal sozietate publikoak, foru-sozietate publikoak edo Eusko Jaurlaritzaren menpekoak.
  - d) Ondasun-erkidegoak.
  - e) Sozietate zibilak.
  - f) Jarduera zuzenean merkatura bideratuta ez daukaten irabazi-asmorik gabeko elkarteak.
  - g) Laguntza bat legez kontraktat edo barne-merkatuarekin bateraezintzat adierazi duen Europako Batzordearen aurretiko adierazpen baten ondoren laguntza hori berreskuratzeko agindu baten zain dauden enpresak.

#### **4. oinarria. — Diruz lagun daitekeen egitatea**

1. Diruz laguntzeko moduko egitatetzat hartuko dira Bizkaiko enpresek lanbide-esperientzia handiko profesional kualifikatuekin egindako lan-kontratu mugagabeak, baldin eta kontratazioaren aurretik jarduera profesionala EAetik kanpo egiten aritu badira, Bizkaiko Lurralde Historikoan jardun dezaten.

2. Diruz lagundu ahal izango dira 5. oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta guztizko puntuazioaren baturan 50 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskabi-deak, 17. oinarrian jasotako irizpideen arabera.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.





4. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluaren arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduerara edo xede betetzea.

#### **5. oinarria. – Dirulaguntza jaso dezaketeko gastuak**

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira Bizkaiko enpresek lanbide-esperezia handiko profesional kualifikatuekin formalizatutako lan-kontratu mugagabeak, baldin eta, kontratatu aurretik, EAETik kanpo jardun badute lanbidean eta, indarrean dagoen araudiaren arabera behar bezala justifikatuta badaude, epe barruan gauzatu badira, beharrezkoak badira eta proiektuaren edo jardueraren izaera eta garapen normalari erantzuten badiote.

2. Eskabidea aurkeztu den egunean, kontratatutako edo kontratatuko diren pertsonen honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Unibertsitate-graduakoa titulua edo lizentziatura izatea.
- b) Egoera hauetako batean egotea:
  - i. Lanaldi osoarako edo partzialerako formalizatutako lan-kontratu bat izatea, betiere enpresa eskatzailearekiko lan-harremana 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi bada. Nolanahi ere, kontratua mugagabea izango da 2023ko irailaren 29an.
  - ii. Kontratazio mugagaberako proposamen irmoa izatea, erakunde eskatzaileak eta kontratatu beharreko pertsonak sinatuta. Nolanahi ere, lan-kontratu mugagabeak 2023ko irailaren 29an formalizatuta egon behar du.
- c) Aurreko ataleko lan-kontratu edo kontratazio-proposamen irmoak urtean gutxienez 45.000 euroko ordainsari gordina izan beharko du.

3. Enpresa eskatzailearekin lehen kontratua formalizatzen den egunean edo kontratazio-proposamena sinatzen den egunean, kontratatutako pertsonen edo kontratatutakoek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Kontratatuko den jardueraren egingo den eremuan gutxienez 5 urteko lan-esperezia izatea.
- b) Beren lanbide-jardueraren EAETik kanpo egin izana, gutxienez 36 hilabetez, eskabidea aurkeztu aurreko 48 hilabeteetan.

4. Kontratatutako pertsonak baldintza hauek bete beharko ditu 2023ko irailaren 30 baino lehen, eta 2024ko abenduaren 31ra arte mantendu beharko ditu:

- a) Dirulaguntzaren xede den lan-kontratu finkoa behar bezala formalizatuta eta indarrean izatea.
- b) Gizarte segurantzaren alta emanda egotea.
- c) Bizkaian erroldatuta egotea.
- d) Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko pertsona fisikoaren erroldan alta emanda egotea.
- e) Bizkaiko Lurralde Historikoan kokaturik dagoen produkzio-zentro bati atxikita egotea.

5. Ez da diruz lagunduko pertsona hauen kontratazioak:

- a) Enpresa kontratatzailearen administrazio-organotako kideak edo bazkideak, bai eta haien ezkontidea, aurrekoak, ondorengoak eta gainerako senideak ere, odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunagatik, bigarren mailara artekoak barne.
- b) Kontratazio-datuaren aurreko 42 hilabeteetan, kontratazioari lotutako erakunde, enpresa edo enpresa berean zerbitzuak eman badituzte, edo enpresen ondorengotza-kasuetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko JEZn lehen alta-data 2019ko urtarrilaren 1ekoa edo geroagokoa duten enpresa berrien kasuan.



Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2 artikuluan ezarritako kasuetan.

Enpresa-ondorengotzaren kasuetan, errespetatu egin beharko da urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 44. artikuluan xedatutakoa.

- c) Administrazioko lanbide-taldean edo antzeko edo beheragoko lanbide-mailan kontratatutakoak izatea.

#### **6. oinarria. – Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.**

1. Laguntzaren zenbatekoa eskabidean edo kontratazio-proposamen irmoan jasotako urteko soldata finko gordinaren %20 izango da 2023an, eta %20 2024an. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa 30.000 eurokoa izango da.

2. Dirulaguntzaren zenbatekoa beherantz biribilduko da, unitate hurbilena aintzat hartuta.

3. Aurrekontu-ekitaldi baten edo batzuen kontura adjudikatu daiteke dirulaguntza, berdin da jarduketa noiz egiten den.

#### **7. oinarria. – Aurrekontuko zuzkidura.**

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak (guztira 590.000,00 euro) jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partidetan, aurrekontu proiektu eta urtekoetatik ordainduko dira; estimatutako kopuruetan banakatuta agertuko dira, eta muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa (€)
2023	08.03/44300/426.106	295.000
2024	Proiektu zk.: 2007/0103	295.000

2. Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorrari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Legearen testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arau-mailearen 56. artikuluan xedatutakoaren babesean, dekretu hau aurretiaz izapidetzen da, eta, horrenbestez, deialdi honetan ageri den gehienezko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da. Ondorioz, dirulaguntzak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea eskabideak ebazten direnean.

3. Deialdi honetan ageri den gehienezko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez, kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da 295.000euroak:

- a) Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.
- b) Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.
- c) Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kreditu handitzea dagoenean:
- 1) Kreditu handitzeak.
  - 2) Kredituak sortzea.
  - 3) Kredituak sartzea.



Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa bada, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko da, soberan den zenbatekoan, foru-dekretu hau aldatu beharrik gabe.

## II. TITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

### 8. oinarria.— *Araubide juridikoa*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak araudi honekin bat arautuko dira: oinarri hauek, 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

2. Era berean, nola ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat joko diren, honako araudi hauen pean egongo dira: Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

### 9. oinarria.— *Organo eskudunak*

1. Dirulaguntza-eskabideak Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak antolatu, ebaluatu eta izapidetuko ditu, Ekintzailtza eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren agindupean.

2. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Enpresen Lehiakortasuna Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrak proposatuta.

### 10. oinarria.— *Arau-haustea eta zehapenak*

1. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legea ezarritakoa, bai eta EAEko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legea aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena.

### 11. oinarria.— *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea*

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

- Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzaren bat betetzen ez denean.
- 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.



3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.
4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.
5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:
  - a) Dirulaguntza ematen den urtean lan-kontratua suntsiarazten bada, horrek bigarren urtekoa kobratzeko eskubidea galtzea ekarriko du, eta jasotako zenbatekoak eta berandutze-interesak itzuli behar izatea ere.
  - b) Dirulaguntza eman eta hurrengo urtean lan-kontratua suntsiarazten bada, bigarren urtealdia kobratzeko eskubidea galduko da. Lan-kontratua suntsiarazten bada behin bigarren urterokoa ordainduta, zati bat itzuli beharko da, egindako jarduerak guztizkoaren aldean dagoen proportzioa aplikatuta.
  - c) Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziario publikoan sortutako soberakina.
  - d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen entitatea eta ez-betetze maila kontuan hartuta.
  - e) Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) dirulaguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.
  - f) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako —5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa—, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio.

Berdin-berdin jokatu da de minimis baldintzak betetzen ez badira baimendutako laguntzak gainditzeagatik.
  - g) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren %10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez betetzearen arrazoiak eta ez betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.
  - h) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza osorik edo zati batean galduko da, oinarrietan xedatutakoaren arabera, eta, berariazko aurreikuspenik ezean, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako duen garrantzia kontuan hartuta.
  - i) Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada, eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela, dirulaguntza jaso ondoren, eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, dirulaguntza jaso dezaketan egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuak osatzen duten proportzioaren arabera izango da dirulaguntzaren itzulketa.

**12. oinarria. — Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.**

1. Borondatezko itzulketa da onuradunak Administrazioaren inolako alde zuzeneko errekrimendurik gabe egiten duena.
2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituzte, 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte.
3. Onuradunak berak bere borondatez itzuli nahi badu dirulaguntza, ordainketa-gutuna erabili beharko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualean eskatu eta gero.

## III. TITULUA

**DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA****13. oinarria. — Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak**

1. Dirulaguntza-programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak konpromisoa hartuko dute Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez (<http://www.bizkaia.eus/sustapena-oficinavirtual>) dirulaguntza jasotzeko eskaera formalizatzeko, dokumentazioa bidaltzeko, justifikazioak egiteko, errekurtsoak jartzeko, alegazioak egiteko, dagoeneko irekita dauden espedientei buruzko aldaketak aurkezteko eta edozein izapide egiteko. Izan ere, kontuan izanik erakundeon gaitasun ekonomiko eta teknikoak eta haien dedikazio profesionala, ulertu behar da bermaturik dutela behar diren bitarteko teknologikoak eskuratu eta erabiltzeko modua, 39/2015 Legearen 14. artikularekin bat etorrira.
2. Interneten aurkeztu behar dira eskaerak, « Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtuala » atalean, Bizkaiko Foru Aldundiaren web-orri instituzionaleko egoitza elektronikoa.
3. Bulego birtualean sartzeko, bertan adierazten den indarreko araudiaren arabera onartutako identifikazio eta sinadura elektronikoko edozein bide erabili ahal izango da. Bitarteko horiei esker, eskaerak egin daitezke pertsona juridikoen ordezkari gisa. Identifikazio eta sinadura elektronikorako B@kQ txartela erabili nahi izanez gero, jakinarazten da Ekonomia Sustatzeko Sailaren egoitzan eskura daitekeela (Orueta apezpikua 6, Bilbo).
4. Eskabidea aurkezteko ezinbestekoa izango da pertsona hori Ekonomia Sustatzeko Sailaren erakunde eta pertsona fisikoen erregistroan alta emanda egotea (erregistro hori Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 14ko 109/2016 Foru Dekretuan araututa dago). Egoera horretan ez badago, pertsona edo erakunde horrek inskripzio-eskabidea bete beharko du bulego birtualean, dirulaguntza-eskabidea izapidetu baino lehen.
5. Eskabideekin batera, hurrengo oinarrian adierazitako dokumentazioa aurkeztu behar da, bulego birtualean dagoen agiriak eransteko sistema erabilita. Era berean, eskabide horietan eskatutako informazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dira.
6. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 1eko 8:30etatik honako egoera hauetakoren bat gertatzen den arte izango da:
  - a) Erabilgarri dagoen aurrekontua agortzen denean.
  - b) Dagoeneko aurkeztu diren eskabideen kopuruagatik eta/edo erabiltzen diren beste datu batzuk kontuan hartuta, aurrekontu erabilgarria agortuko dela uste bada.
  - c) 2023ko irailaren 15eko 13:30era heltzen denean.
  - a) edo b) egoerak gertatzen badira, Ekonomia Sustatzeko diputatuaren foru-agindua bidez erabaki beharko da eskabideak aurkezteko epea ixtea, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

**14. oinarria. — Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa**

1. Ekonomia Sustatzeko Sailaren bulego birtualaren bidez aurkeztutako eskabideak bulego birtualaren bidez bete eta aurkezteko dauden eredu espezifikoaren arabera-koak izango dira, 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira.

2. Erakunde bakoitzak, eskabide bi aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.

Enpresa batek eskabide-kopuru muga gainditzen badu, organo instruktoreak jasota-ko lehenengo eskabideak baino ez ditu ebaluatuko, eta gainerako eskabideak automa- tikoki ez ditu onartuko.

3. Agiri administratibo eta tekniko hauek aurkeztu behar dira eskabideekin batera:

- a) Eskabide telematikoa, behar bezala eta oso-osorik beteta.
- b) Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean eta bulegoetan eskura daitekeen ereduaren arabeko eskabidea.
- c) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundiko webgunean dagoen eredu ofi- ziala, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badau- de edo dauden datuak aldatu nahi badira.

d) Langile autonomoen kasuan, enpresak ordaindutako azken autonomoen ziurta- giria edota azken nomina.

Inoren konturako langileen kasuan, Ekonomi Sustatzeko Sailak automatikoki egiaztatuko du enpleguaren betekizuna betetzen den.

e) Lan-kontratua edo kontratazio mugagabeko proposamen irmoa, erakunde eska- tzaileak eta kontratatuko den pertsonak sinatua. Informazio hau jaso beharko da: kontratu-mota, lanbide-taldea/lanbide-maila, urteko ordainsari gordinaren zenba- tekoa, iraupena, lanaldia eta lantokia.

f) Kontratututako pertsonari Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean alta ema- tea, hala badagokio.

g) Enpresa kontratatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, non adieraziko bai- ta kontratatutako edo kontratatu beharreko pertsona ez dagoela 5.5 oinarrian aurreikusitako kasuetan, webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera. JEZen lehen alta-data 2019ko urtarrilaren 1a edo geroagokoa duten enpresa berrien kasuan, erantzukizunpeko adierazpen horretan ez da jaso beharko 5.5 oinarriko b) idatz-zatian ezarritakoa.

h) Kontratututako edo kontratatuko den pertsonaren unibertsitate-gradu-ko titulu ofi- ziala edo lizentziatura egiaztatzen duen agiria.

i) Lan-bizitza edo, jarduera Espainiako estatutik kanpo egin bada, kontratatutako edo kontratatu beharreko pertsonaren antzeko agiria, hala badagokio.

j) Kontratututako edo kontratatuko den pertsonaren Bizkaiko errolda-ziurtagiria, hala badagokio.

k) Kontratututako edo, hala badagokio, kontratatuko den pertsonari Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Sailaren pertsona fisikoen erroldan alta emateko eskabidea- ren egiaztatzea. Pertsona hori erroldan agertzen bada, ez da beharrezkoa izan- go aurkeztea.

l) Kontratututako edo kontratatuko den pertsonaren baimena, web orrian eskura- garri dagoen ereduaren arabera, Ekonomia Sustatzeko Sailak eskaera izapide- tzeko behar diren datu hauek eskuratu ditzan: pertsonen fitxategi nagusia (SICO/ N5), errolda, lan bizitza eta unibertsitateko titulazioa.

m) Kontratututako edo kontratatuko den pertsonaren curriculum vitae-a, gutxienez honako informazio hau jaso beharko duena:

- i. Profesionalaren aurkezpen laburra, lan-helburuak barne.
- ii. Datu pertsonalak. Izen osoa, telefonoa eta helbide elektronikoa. Jaioteguna. Jaioterria eta nazionalitatea. Egungo bizilekua eta herrialdea. NAN/Pasapor- te-zk.



- iii. Prestakuntza akademikoa, hala badagokio, graduondokoak eta doktoregoak barne (datak, zentroa eta non egin diren adierazita).
  - iv. Lanbide-esperientzia, honako hauek adierazita: datak, kargua eta lanpostu bakoitzaren eginkizunak, enpresa kontratatzailearen izena eta jatorrizko herria, zein sektoretakoa den eta atxikitako lantokia.
  - v. Hizkuntzak, maila eta titulu ofizialak zehaztuta.
  - vi. Prestakuntza osagarria.
  - vii. Merezimenduak, sariak, patenteak, gaitasunak, trebetasunak, garrantzi bereziko lorpen profesionalak eta garrantzizko beste edozein informazio gehigarri.
- n) Curriculum vitae-ko datuak egiazkoak direla egiaztatzen duen zinpeko aitortpena, kontratatuak edo kontratatzeakoak sinatua.

4. Ekonomia Sustatzeko Sailak, Bizkaiko Elkarrengarritasun Nodoaren bidez eta/edo dagozkion elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez, aurkeztu diren eskabideen administrazio-izapideak egiteko eskatutako pertsona eta erakunde interesdunen datuak egiaztatu eta kontsultatuko ditu, 39/2015 Legearen 13., 28. eta 53. artikuluetan aitortutako eskubideei kalterik egin gabe.

Laguntza-eskaerak berekin ekarriko du beste bitarteko batzuen bidez beste administrazio publiko batzuetatik informazio egokia lortzeko baimena, baldin eta arrazoi teknikoengatik ezin bada lortu elkarrengarritasun-zerbitzuen bidez.

Arrazoi teknikoak direla eta, ez bada posible informazioa zuzenean beste administrazio batzuetatik eskuratzea, Ekonomia Sustatzeko Saileko Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak izapideak egiteko beharrezkotzat jotzen dituen datuak edo dokumentuak eskatu ahal izango ditu.

#### **15. oinarria. — Eskabidea zuzentzea edo hobetzea**

1. Eskabideak elektronikoki, estandarrak eta formatuak betetzen ez badituzte, termino guztiak betetzen ez badira, edo eskabidearekin batera foru-dekretu honetan eskatutako agirietaoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio interesdunari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

2. Organo instrukzio-egileak informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du aurkeztutako proiektuaren diruz lagun daitekeen oinarria behar bezala ebaluatzeke, baina horrek ez du eraginik izango aldeztatik eskabideari eslelitutako hurrenkera-zenbakian.

#### **16. oinarria. — Dirulaguntza emateko prozedura**

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokarik gabeko araubidean izapidetuko da, eta funtsak eta eskabideak erregistratzeko hurrenkeraren arabera banatuko dira, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badira, erabilgarri dagoen aurrekontua agortu arte, deialdiaren indarraldia amaitzen den egunera arte edo deialdia aldeztatik itxi arte.

#### **17. oinarria. — Diruz lagun daitekeen egitatea ebaluatzeke irizpideak**

4.2 oinarrian ezarritako baldintza betetzen den edo ez ebaluatzeke, dirulaguntzetarako eskabideak oinarri honetan jasotako irizpideen arabera baloratuko dira.

*1. irizpidea: Kontratutako edo kontratatuko den pertsonaren curriculum vitaearen eta aurkeztutako memoriaren garapen- eta zehaztasun-maila (0-10 puntu)*

Curriculum vitaearen edukia baloratuko da, dekretu honetan eskatutakoari dagokionez, bai eta erakunde eskatzaileak aurkeztutako memoriaren edukia ere.



*2. irizpidea: Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren garapen profesionala (0-20 puntu)*

Garapen profesionalaren ibilbidea, Bizkaiko Lurralde Historikoan errotzea sustatzen duten inguruabarrak eta elementuak, eta esperientzia eta prestakuntza baloratuko dira.

*3. irizpidea: Enpresa-estrategia kontratazio berriari dagokionez (0-35 puntu)*

Hauek baloratuko dira: enpresaren strategiaren eta haren funtsezko elementuen definizio-maila, kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren profilaren garrantzia enpresaren estrategian, enpresako langile kualifikatuak atxikitzeko potentziala eta enpresak hurbileko ingurunean profil baliokideak lortzeko duen zailtasuna.

*4. irizpidea: Kontratatutako edo kontratatuko den pertsonaren profila enpresa-estrategia-  
ra egokitzea (0-25 puntu)*

Honako hauek baloratuko dira: kontratazio berriari profesionalak curriculumerako izango duen aurrerapena, ibilbide profesionalak enpresaren strategiarekin duen koherentzia, lanpostuan jarduteko trebetasun teknikoak eta esperientzia, bai eta pertsona hori kontratatzeak enpresarentzat duen eragina ere.

*5. irizpidea: Proiektuaren beste ezaugarri batzuk (0-10 puntu)*

Kontratatuko den pertsona 35 urtetik beherakoa izatea, emakumea izatea eta Bizkaikoa izatea baloratuko da, eta erakunde eskatzailearen gerentea emakumea izatea. Ezaugarri bakoitzari 2,5 puntu emango zaizkio.

2. Eskaera baloratzeko, jasotako dokumentazioa hartu-ko da kontuan, eta kontuan hartuko da ere enpresa eskatzailea-rekin eta kontratatutako pertsonarekin edo kontratatu beharreko pertsonarekin egindako elkarrizketa batean jasotako informazioa ere, elkarrizketa hori beharrezkotzat jotzen bada. Era berean, balorazio hori egiteko, Enpresa Sustatzeko Zerbitzuak arlo horretan esperientzia garrantzitsua duten hainbat sektore eta diziplinatuko adituen laguntza eskatu ahal izango du.

## **18. oinarria. – Ebazpena**

1. Espedientearen instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organoak ebazpen-proposamena egingo du, eta Ekintzaitza eta Enpresen Lehiakortasuna bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrari helaraziko dio. Azken horrek, era berean, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari igorriko dio ebazpen-proposamena, eta hark dagokion foru-aginduaren bidez ebartziko du. Ebazpenean erabakiko da bai dirulaguntzak ematea, bai ezestea edo ez ematea.

2. Ebazpenak, gutxienez, hartutako ebazpenaren oinarriak jasoko ditu, bai eta, kasuen arabera, emandako zenbatekoa edo ezesteko edo ez emateko arrazoiak ere.

3. Dirulaguntza emateko ebazpenean, baldintza bereziak ezarri ahal izango dira, baldin eta uste bada ezen, proiektuen izaera berezia edo gertatzen diren beste inguruabar batzuk direla bide, egoki dela halako baldintzak ezartzea, hartara kasu bakoitzari egokitzeko eta aplikatzeko foru-dekretu honetan edo aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedaturikoa.

Halaber, onarturiko dirulaguntza emateko ebazpenean adieraziko da de minimis erregelamenduari atxikitako laguntza dela, eta esplizituki adieraziko da dirulaguntza gordin baliokidearen zenbatekoa.

4. Hartutako ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie.

5. Ebazpena jakinarazi ondoren, hamar (10) eguneko epea izango dute onuradunek ebazpena onartzeko, eta epe hori berenberegiko adierazpenik egin gabe igarotzen bada, ebazpena isildidez onartu dela ulertuko da.

6. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea sei (6) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Epe horretan ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat joko da, administrazio-isiltasuna dela eta.



**19. oinarria. — Errekurtsok**

1. Ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, 39/2015 Legearen 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, hilabeteko (1) epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

2. Era berean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegiaren aurrean —txandaren arabera dagokiona—, bi (2) hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta, kontuan harturik zer ezartzen duen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

3. Ezin izango dira bi errekurtsok aldi berean jarri.

**20. oinarria. — Dirulaguntzari uko egitea**

1. 34/2010 Foru Dekretuaren 48.3. artikuluan arautzen denarekin bat, onuradun gertatu den pertsona batek dirulaguntzari uko egiten badio, dirulaguntza ematen duen organoak erabaki dezake zerrendan hurrengo datozen eskatzaileei ematea (hurrenkeraren arabera), baldin eta nahikoa kreditu geratu bada aske kasuan kasuko eskabideei erantzuteko.

2. Dirulaguntza ematen duen organoak aukera horren berri emango die pertsona edo erakunde interesdunei, dirulaguntzaren proposamena onar dezaten, hamar (10) egun balioduneko epean; epe hori ezin da luzatu. Behin pertsona edo erakunde eskatzaileek proposamena onartu ondoren, administrazio-organok dirulaguntza emateko egintza emango du, eta haren jakinarazpena egingo du.

3. Uko egitea aurkezteko gehienezko epea hamar (10) egun baliodunekoa izango da, interesdunari dirulaguntzaren proposamena jakinarazten zaionetik hasita. Epe hori igarota, hortik aurrera egindako edozein uko egite dirulaguntza emateko baldintzak ez betetzat joko da.

**21. oinarria. — Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea**

1. Pertsona onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, baimena eska diezaioke Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketak egin ahal izateko, hala nola, finkatutako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen ekintzak aldatzea. Aldaketa horiek baimenduko dira ezohiko inguruabarrak daudenean edo jarduera ondo gauzatzeko beharrezkoak direnean, betiere dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta hirugarren pertsonen eskubideei kalte egiten ez bazaie. Aldaketa-eskaerak diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu bi baino hilabete (2) lehenago aurkeztu beharko dira gutxienez (oharra.- zerbitzu sustatzaileak beste epe bat adieraz dezake).

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak ofizios alda dezake dirulaguntza emateko ebazpena, onuradunari entzunaldia eman ondoren eta funtsak aplikatu aurretik; horretarako, bi baldintza hauek bete behar dira: batetik, laguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzen aldaketek ezin izango dute eragotzi edo oztopatu laguntzaren bidez lortu nahi zen interes publikoa, eta, bestetik, ezingo zaio kalte ekonomikorik eragin onuradunari.

3. Dirulaguntzaren onuradunak, berak aurkeztutako justifikazioan, adierazten badu aldaketa batzuk egon direla dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzetan, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar lezaketenak, eta aldaketa horiek guztiak onartzeko ez bada bete aurretik bete beharreko baimen administratiboko izapidea, orduan, dirulaguntza eman duen organoak onartu egin dezake aurkeztutako justifikazio hori, betiere onartze horrek ez badie kalterik eragiten hirugarrenen eskubideei; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona onuraduna 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

**22. oinarria. — Emandako dirulaguntzen publizitatea**

Dirulaguntza eman den urte naturala amaitu ondorengo lehen hiru hilabetea amaitu baino lehen, Ekonomia Sustatzeko Sailak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko ditu



deialdi publiko honen ondorioetarako emandako dirulaguntzak, honako hauek adierazita: deialdia, aurrekontuko zer programari eta kredituri egozten zaizkion, onuradunaren izena edo sozietate-izena eta haren identifikazio fiskaleko zenbakia, emandako zenbaterkoa, dirulaguntzaren helburua edo helburuak, eta diruz lagundutako programak edo proiektuak. Urte askotako dirulaguntzen kasuan, emandako zenbateko osoa eta urtekoen banaketa.

**23. oinarria. — Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea**

Onuradunek diruz lagundutako jarduketaren finantzaketa publikoaren publizitatea egin beharko dute. Horretarako, lagundutako jarduketaren zabalkunde publikorako egiten dituzten material, argitalpen eta ekitaldi guztietan, jasotako laguntza aipatu beharko dute eta Bizkaiko Foru Aldundiaren logotipoa jarri beharko dute, erraz ikusteko leku batean.

**24. oinarria. — Jakinarazpen elektronikoa**

1. Erakunde interesdunei egindako jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egingo dira, 39/2015 Legean aurreikusitakoaren arabera.

2. Bitarteko elektronikoen bidezko jakinarazpenak Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa agertuz egingo dira (<https://www.ebizkaia.eus>) araudi bi hauetan ezarritakoaren arabera: Bizkaiko Foru Aldundiaren 62/2015 Foru Dekretua, maiatzaren 5ekoa, Administrazio Elektronikoa buruzkoa, eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatuaren 4841/2016 Foru Agindua, ekainaren 6koa, jakinarazpenak eta komunikazioak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa agertzeko sistemaren bidez egiteari buruzkoa.

3. Egindako jakinarazpen elektronikoa eskuragarri jartzeari buruzko abisuak eskabidean aurkeztutako helbide elektronikora bidaliko dira. Horretarako, eskaera bete ondoren, ofizioz eskumena duen organo edo unitateak alta emango dio helbide elektronikoa horri Bizkaiko Foru Aldundiaren prozeduren katalogoko dirulaguntzen prozedura honetarako aipatutako egoitza elektronikoa abisu-sisteman. Abisu horiek ez dute, inola ere, jakinarazpen-ondoriorik izango, eta horiek ez egoteak ez du eragotziko jakinarazpena guztiz baliozkotzat jotzea.

4. Jakinarazpenak egindakotzat joko dira edukira sartzerakoan, eta ezetsizat jakinarazpena eskura jartzen denetik hamar egun natural igarotzen direnean edukira sartzerik gertatu ez denean.

**IV. TITULUA****GAUZATZEA, JUSTIFIKATZEA ETA KONTROLA****25. oinarria. — Gauzatze epea**

Kontratazio mugagabea 2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko irailaren 29ra bitartean hasi behar da, eta 2024ko abenduaren 31ra arte egon behar du indarrean.

**26. oinarria. — Justifikazio-epea**

1. Dirulaguntzaren onuradun diren erakundeek telematikoki aurkeztu beharko dituzte 27. oinarrian eskatzen diren txostenak, epe hauetan:

- a) Bitarteko txostena 2024ko ekainaren 1etik 30era bitartean aurkeztuko da.
- b) Azken txostena 2025ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean aurkeztuko da.

2. Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak azken justifikazioa aurkezteko ezarritako epea luzatu ahal izango du, betiere alegatutako inguruabarrek hala gomendatzen badute eta horrekin hirugarrenen eskubideei kalterik egiten ez bazaie. Eskaera eta luzapenari buruzko erabakia justifikazio-epea amaitu baino lehen egin beharko dira. Alegatutako arrazoia gertatu eta berehala eskatu beharko da, eta, nolahi ere, justifikazio-epea amaitu baino gutxienez bi hilabete (2) lehenago. Berriazko ebazpenik jakinarazten ez bada, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.



3. Justifikazioa egiteko epea igaro eta dagokion instrukzio-organoaren aurrean ez bada aurkeztu justifikaziorik, organo horrek errekerimendua egingo dio erakunde onuradunari, hamabost (15) egun baliodunen epean aurkez dezan, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori ezingo da luzatu. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, dirulaguntza itzultzea eskatuko zaio onuradunari eta, gainera, 5/2005 Foru Arauaren 37. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen diren gainerako erantzukizunak eskatuko zaizkio.

**27. oinarria. – Dirulaguntzak justifikatzea**

1. Erakunde onuradunek bitarteko txosten bat aurkeztu beharko dute telematikoki, eta, bertan, kontratatutako pertsonak egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaldu beharko dituzte, honako agiri hauekin batera.

- a) Kontratatutako pertsonari 2024ko maiatzaren 31ra arte sortutako nominak.  
Justifikazio-nominak bulego birtualaren bidez bidaltzean, sistemak automatikoki sortuko du diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda.
- b) Txostena aurkezten den egunean eskuragarri dagoen azken langileen zerrenda izenduna (LZI), non agertzen baita kontratatutako pertsona.
- c) Kontratatutako pertsonaren errolda-ziurtagiria, 2024ko ekainaren emana.

2. Onuradunak justifikazio-kontuaren modalitatea erabiliko du dirulaguntza emateko egintzan ezarritako baldintzak eta aurreikusitako helburuak bete dituela justifikatzeko. Erakunde onuradunek azken txosten bat aurkeztu beharko dute bide telematikoa erabiliz. Bertan, kontratatutako pertsonak egindako jarduerak, lortutako emaitzak eta enpresaren garapen estrategikoari egindako ekarpena azalduko dira, honako agiri hauekin batera:

- a) Kontratatutako pertsonari 2024ko abenduaren 31ra arte sortutako nominak.  
Justifikazio-nominak bulego birtualaren bidez bidaltzean, sistemak automatikoki sortuko du diruz lagundutako jardueraren gastuen zerrenda.
- b) Txostena aurkezten den egunean eskuragarri dagoen azken langileen zerrenda izenduna (LZI), non agertzen baita kontratatutako pertsona.
- c) Kontratatutako pertsonaren errolda-ziurtagiria, 2024ko abenduan emana.
- d) Ezarritako gainerako betebeharrak (dirulaguntzaren zabalkundea, gardentasun-araudia betetzea, hizkuntza koofizialak erabiltzea, genero-berdintasuna, beste gizarte-politika batzuk...) bete direla justifikatzeko memoria, betebeharrak bete direla egiaztatzen duten txosten, adierazpen eta dokumentuak erantsita.
- e) Kontratazioa finantzatzeko jasotako diru-sarreraren zerrenda.

**28. oinarria. – Dirulaguntza ordaintzea**

1. Ekonomia Sustatzeko Sailak ordainduko dizkio dirulaguntzak, zuzenean, onuraduna den entitateari.

2. Lehenengo urteari dagokion zenbatekoa 2023ko irailaren 30a baino lehen aurkeztutako dokumentazio hau telematikoki aurkeztu ondoren ordainduko da:

- a) Behar bezala formalizatutako lan-kontratu mugagabea.
- b) Kontraturiko pertsonari Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta eman zaiola adierazten duen agiria.
- c) Kontratatu den pertsonaren errolda-ziurtagiria.
- d) Kontratatutako pertsonari Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun Saileko pertsona fisikoaren erroldan alta eman izanaren egiaztatzea. Pertsona hori erroldan agertzen bada, ez da beharrezkoa izango aurkeztea.

3. Bigarren urteari dagokion zenbatekoa 27.1 oinarrian eskatutako dokumentazioa telematikoki aurkeztu ondoren ordainduko da.



4. Dirulaguntza ordaindu baino lehenago, onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatuko da, eta ez daudela dirua itzultze-rah behartzen duen ebazpen prozedura baten ondorioz zordunen artean. Edozelan ere, egiaztatuko da onuradunak ez daudela honako kasu hauetan: konkurtso-deklarazioa eskatu bada; edozein prozeduratan kaudimengabe deklaratuak izan badira; konkurtsoan deklaratu badaude; esku-hartze judizialen menpe baldin badaude; edo Lege Konkurtsoaren arabera desgaituak izan badira eta konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaituntza-epaia artean amaitu barik badago.

5. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, edo itzultzeko ebazpen baten ondorioz zorduna bada, ezin izango da dirulaguntza ordaindu.

6. Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, dirulaguntza-aren eskabidean adierazitako kontu korrontera.

### **29. oinarria. — Laguntzak metatzea.**

1. Foru-dekretu honetan jasotako dirulaguntzek honako erregelamendu honetan xedaturikoa bete behar dute: Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa.

2. Ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat hartuko dira. Emandakotzat joko dira onuradunari dirulaguntza jasotzeko eskubide legala aitortzen zaion unean.

3. Pertsona onuradun batek jaso dezakeen de minimis laguntzen zenbateko osoa ezin da izan 200.000,00 euro baino gehiago (salbu eta garraioaren sektorean, non ezin baita izan 100.000 euro baino gehiago), zenbatzen direlarik indarreko ekitaldi ekonomikoa eta aurreko biak.

4. Ez bada betetzen Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, horrek berekin ekar diezazkioke arau-hausleari erantzukizun penala, zibila eta administratiboa.

5. Foru-dekretu honen arabera emandako laguntzak beste de minimis laguntza batzuekin metatu ahal izango dira, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzko 2013ko abenduaren 18ko Erregelamenduan (EB) ezarritako gehieneko mugaraino. Laguntza horiek ez dira Estatuko ezein laguntzarekin metatuko, diruz lagun daitezkeen gastu berei dagokienez, baldin eta metatze horrek gainditu egiten baditu Batzordeak onarturiko kategorien arabera salbuespen-erregelamendu batek edo erabaki batek kasuan kasurako finkaturiko inguruabar zehatzetarako laguntza-intentsitatea edo gehieneko laguntza-zenbatekoa.

### **30. oinarria. — Laguntzen bateragarritasuna.**

1. Foru-dekretu honen babesean emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira helburu bererako Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, gastu hautagarri berberetarako gehieneko laguntza- intentsitatea errespetatzen bada.

2. Hala ere, ez dira bateragarriak izango Bizkaiko Foru Aldundiako helburu bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

3. Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntzekin batera, ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

4. Muga horietakoren bat gaindituz gero, eman beharreko edo emandako diru-laguntzari soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio.

5. Onuradunak diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu dituztela jakinarazi beharko diote Ekono-



mia Sustatzeko Sailari, horren berri izan bezain laster eta, nolana ere, funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen, eta, hala badagokio, egindako itzulketa-gutunaren kopia erantsita. Hori guztia 5/2005 Foru Arauaren 18.3 eta 4. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izateko eta, hala badagokio, itzulketa-prozedura hasteko.

**31. oinarria. – *Pertsona onuradunen beste betebeharrak.***

Honako betebeharrak izango dituzte laguntzen onuradunak:

- a) Dirulaguntza emateko arrazoi den helburu, proiektu, jarduera edo jokaera lortu, burutu, egin edo hartzea.
- b) Ekonomia Sustatzeko foru diputatuaren aurrean justifikatzea betekizun eta baldintzak betetzen direla, baita jarduera egin dela eta dirulaguntza emateko edo laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartutako xedea bete dela ere.
- c) Oinarri hauetan jasotako hedapen-neurriak hartzea, hau da, «Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea» izeneko oinarrian adierazitakoa betetzea.
- d) Aurrekontu ekitaldi batean Bizkaiko Foru Aldunditik gutxienez 100.000 eurokoak diren laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeak edo urteko diru-sarreraren %40 foru laguntzak edo dirulaguntza publikoak direnean, baldin eta gutxienez 5.000 eurokoak badira, bete egin beharko dituzte Bizkaiko gardentasunaren otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauko publizitate aktiboaren betebeharrak. Hau da:
  - i. Aurretik aipatutako mugak gainditu eta hurrengo urtetik aurrera webgunean informazio publiko garrantzitsua argitaratzea modu irisgarrian, doan, egiaz, eguneratuta eta berrerabiltzeko moduan. Datu pertsonalak babestearen arloko legeria errespetatuko da eta euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko dira. Horretarako, informazioa euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko da.
  - ii. Informazioa eguneratuta mantentzea gutxienez lau urte naturaletan.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza koofizialak erabiltzea hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13.3 eta 13.4 artikuluetan ezarritakoarekin bat. Hau da:
  - i. Diruz lagundutako jarduera publiko guztietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.
  - ii. Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako materialetan, argitalpenetan eta bestelako euskarrietan bi hizkuntza koofizialak erabiltzea.
- f) Genero ikuspegia sartzea eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Horrek hauxe esan nahi du:
  - i. Egiaztatzea jarduketetan bete egiten direla 4/2005 Legearen 3. artikuluan adierazitako printzipio orokorrak, egindako azterketa eta estatistiketan lege horren 16. artikuluan xedatutakoa betetzen dela eta zuzenean edo hirugarrenen bidez sortutako hizkuntza, irudi, euskarri eta dokumentuetan hizkuntza sexista erabiltzen ez dela egiaztatzea.
  - ii. Egiaztatzea Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizio, sarbide, kontratazio eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bitzita pertsonal, lan-bitzita eta familia-bitzita uztartzearen arloan, lanaren kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikal, ordezkartza eta negoziazio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak sustatzen direla eta gardentasun eta ordainsari berdintasun printzipioa betetzen dela.



- iii. Egiaztatzea zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezzen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jarduera egiteko sortutako materialetan
  - iv. Egiaztatu behar da Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat datorren berdintasun plan bat dutela, eta benetan aplikatzen dutela.
  - v. Egiaztatzea bermatzen dela neurriak hartuko dituela lan-arloan emakumeen kontrako indarkeria prebenitzeko, hari aurre egiteko, haren jarraipena egiteko, hura ebaluatzeko eta desagerrarazteko, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko.
  - g) Kontabilitate liburuak, erregistroak eta gainerako agiriak egunean edukitzea — egin beharreko eginbide eta auditoriak eginda, alegia—, pertsona onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritza-legerian eta legeria sektorialean ezarritakoaren arabera, eta dirulaguntzen oinarri-arauetan eskatzen diren kontabilitate orri eta erregistro espezifikoko guztiak edukitzea, egiaztapen eta kontrol ahalmenen erabilera egokia bermatzeko.
  - h) Jasotako funtsen erabilera frogatzen duten agiriak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol ekintzetarako erabilgarriak izan daitezkeen neurrian.
  - i) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan jasotako egoeretan jasotako funtsak itzultzea.
  - j) Baldin eta dirulaguntza emateko orduan kontuan hartu diren inguruabar objektibo edo subjektiboetatik edozein aldatu bada, aldaketa horren berri ematea dirulaguntza eman dionari.
  - k) Foru Administrazioako organoek eskatzen dieten laguntza eta dokumentazioa ematea, bai eta, Europar Batasuneko araudiaren arabera, finantza-kontrol-eko eginkizunak esleituta dituzten organoek ere. Horretarako, honako ahalmen hauek izango dituzte:
    - i. Egiaztatu beharreko agiritara, euskarri informatikoan dauden programa eta artxiboak barne, iristeko askatasuna.
    - ii. Sarrera librea diruz lagundutako jarduera garatzen den edo dirulaguntzaren kargura finantzatutako eragiketen errealitatea eta erregularatasuna egiaztatzeke aukera ematen duten negozio-lokaletara eta gainerako establezimendu edo lekuetara.
    - iii. Fakturak, agiri baliokideak edo ordezkioak eta eragiketei buruzko beste edozein agiri atxikitzea edo kopia eskuratzea, baldin eta horietan dirulaguntza behar ez bezala lortu, baliatu edo erabili izanaren zantzuak ondorioztatzen badira.
    - iv. Dirulaguntzak kobratu diren edo funtsak erabili diren finantza-erakundeetako banku-kontuetako informazioa eskuratzeko askatasuna.
- Laguntza emateko eta dokumentazioa emateko betebeharrak hori betetzeari uko egitea erresistentziatzat, desenkusatzat, oztopotzat edo negatibotzat joko da, 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, hala bada gogio, zehapenen kalterik gabe.
- l) Emakumeen eta gizonen arteko genero berdintasunarekin lotutako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke jarduketak egitea eta justifikazio dokumentazioa ematea. Laguntzen ez bada eta dokumentazioa ematen ez bada, urratu egingo dira 5/2005 Foru Arauaren 33.1.f) artikuluan adierazitakoaren ondorioetarako ezarritako betebeharrak.



- m) Deslokalizazioan ez erortzea. Enpresa deslokalizaziotzat jotzen da Enpresak deslokalizatzen direnean foru-sektore publikoak laguntzak berreskuratzeari buruzko martxoaren 27ko 7/2007 Foru Arauak ezarritakoa, eta foru-dekretu honek arautzen dituen dirulaguntzei aplikatuko zaie foru-arau hori.

**ERANSKINA****EKONOMIA JARDUERA ZERRENDA**

3. oinarrian adierazitakoaren arabera, onuradun izateko, beste baldintza batzuen artean, enpresek EJSN - 2009ko (apirilaren 13ko 475/2007 Errege Dekretua, apirilaren 28ko 102. BOEan argitaratua) epigrafe hauetakoren batean inskribatuta eduki behar dute euren jarduera ekonomiko nagusia:

- B atala: Erauzketako industriak.
- C atala: Manufaktura-industria.
- D atala: Indar elektriko, gas, lurrun eta aire girotuko hornitura.
- E atala: Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.
- F atala: Eraikuntza (talde hau izan ezik):
  - 41.1. taldea. Higiezinen sustapena.
- G atala: Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa (multzo hau izan ezik):
  - 47. multzoa. Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik.
- H atala: Garraioa eta biltegiatzea.
- I atala: Ostalaritza (talde hau izan ezik):
  - 56.3. taldea. Edaritegiak.
- J atala: Informazioa eta komunikazioak.
- M atala: Jarduera profesionalak, zientifiko eta teknikoak.
- N atala: Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak (multzo hau izan ezik):
  - 80. multzoa. Segurtasun eta ikerketa jarduerak.
- P atala: Hezkuntza (multzo hau baino ez):
  - 85.6. multzoa. Hezkuntzako jarduera lagungarriak.
- Q atala: Osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak (multzo hauek baino ez):
  - 87. multzoa. Egoitzetako laguntza.
  - 88. multzoa. Ostaturik gabeko gizarte zerbitzuetako jarduerak.
- R atala: Arte, aisialdi eta denbora-pasako jarduerak (multzo eta talde hauek baino ez):
  - 90. multzoa: Sormen, arte eta ikuskizunen jarduerak.
  - 91. multzoa: Liburutegi, artxibategi eta museoetako jarduerak eta beste kultura jarduera batzuk.
  - 93.2 taldea: Aisialdi eta entretenimendu jarduerak.
- S atala: Bestelako jarduerak (multzo hau baino ez):
  - 95. multzoa. Ordenagailuen, norberaren gauzen eta etxeko gauzen konponketa.

Salbuespenez, interes nabarmena duten proiektuak direnean, aurreko epigrafeetan agertzen direnez bestelako jarduera nagusia duten enpresak ere onuradun izan ahalko dira, Ekonomia Sustatzeko Saileko foru diputatuaren ebazpen arrazoituaren bitartez.